



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko maiatzaren 18a

56. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubi-deei eta betebeharrei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, industria hondakinei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—Galdera, Nafarroako Landa Garapen Iraugarriari buruzko Planaren gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Aurrezki Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kide izateko proposatu behar dituen lau pertsonak hautatzeko arauak (8. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko maiatzaren 13an egin-dako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de

Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta 2010eko martxoaren 18ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko maiatzaaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, industria hondakinei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du industria hondakinei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 20ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du hondakin industrialei buruz (PES-308). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak jakin du modu puntualean hondakin industrialak erabili direla nekazaritza laboreetarako gehigarri edo ongarri moduan. Jokaera horietarako, ordea, ez da alde zuzenik baimenik eman, eta erregistratu ere ez dira egin, exijitzeko litzatekeen bezala. Jokaera horiek atzeman direnetan, ikuskaritzaren kasuko akta egin da eta zehapen espediente zabaldu zaie egintza horien ardura dunei. Espediente horiek zabaltzeko garaian, hondakinen ezaugarrien eta haien osaera kimikoaren berri jaso dugu. Atzemandako kasu guztietan, arriskurik gabeko hondakinak dira, papergintzaren sektoretik heldu direnak. Lortu ditugun datuetatik ondorioztatzen da hondakin horiek ez dutela ez metal astunak ez eta gizakien osasunerako gai arriskutsurik, atzemandako moduko kopurutan. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ezin du bermatu legez kanpo aplikatu diren eta zuzenean aplikatzeko berariaz baimendu ez diren inongo hondakin industrialen jatorria.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak exijitzen eta kontrolatzen du Nafarroan

sortzen diren hondakin industrial guztiak hondakinekin lan egiteko baimendutako kudeatzaileek tratatzea, Nafarroako nahiz foru erkidegotik kanpokoak izan. Hori guztia alde batera utzita kudeatzaile horiek hondakinak zertarako erabiltzen dituzten. Amaierako erabilera hori ere bai kasuko ingurumeneko agintariek (Nafarroan gure departamentuak), bai nekazaritzaren arloko agintari eskudunak kontrolatzen dute, baldin eta ongarri edo gehigarri organikoak fabrikatzeko erabiltzen badira, hain zuzen ere uztailaren 824/2005 Errege Dekretuan araututakoari jarraituz. Jarduera horietan diharduten eta Nafarroan dauden kudeatzaileen kasuan, ongarri edo gehigarriak fabrikatzeko baimendu diren hondakin bakarrak dira Ongarri buruzko uztailaren 8ko 824/2005 Errege Dekretuko IV. eranskineko hondakin organiko biodegradagarrien zerrendan ageri direnak. Hondakin industrialak beste autonomia erkidego batzuetara garraiatzeko eman litezkeen baimenei dagokionez, aipatu beharra dago hondakinak garraiatzeko baimena soilik ematen dela garraiolariak hondakinaren titulartasuna bere gain hartzen baldin badu. Halakorik, ordea, ez da ia inoiz gertatzen. Oro har, hondakinei buruzko arauak behar dituzte ekoizlea eta amaierako kudeatzailea dira, eta gutxitan baino ez garraiolaria bera. Hori dela eta, baimen horiek ez dira ematen. Hala eta guztiz ere, garraiolariari bai eskatzen zaie Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan halakotzat izena emanda egotea, departamentuko webgunean jasotako betebeharrak eta baldintzekin.

Seigarren galderari dagokionez, 2008ko eta 2009ko izapidetutako edo izapidetzen ari diren zehapen espedienteen zerrenda erantsi dugu, hondakin industrialak nekazaritzarako ongarri gisa erabiltzeari dagokionez.

Zazpigarren galdera dela eta, esan behar dugu dauden espedienteak administratiboak direla hondakinen kudeatzailearen baimena lortzeko izapidetzen direnak. Jatorri aniztetako hondakin biodegra-

dagarren kudeatzaileak dira, hondakin horiek tratatzeko prozesu baten ondoren nekazaritzarako ongarriak edo gehigarriak fabrikatzen dituztenak. Trataturiko lohiak oinarri harturik nekazaritzan aplikatzekoak diren tratamenduak egiteko baimendutako kudeatzaileen zerrenda erantsi dugu. Hala ere, biometanizazioko tratamenduak eta digestio aerobioko tratamenduak egiteko edo konposta fabrikatzeko baimena dutenen zerrenda erantsi dugu. Departamentuko artxiboetan ageri den informazioari jarraituz, Agringes SL enpresak ez du baimenik hondakin industrialak kudeatzeko; halere, 2006an, baimen bat izapidetu zuen, baina azkenean ez zitzaion kudeatzailea izateko baimenik eman, zeren eta hasieran aurkeztutakoaz gaineko dokumentazio bat eskatu baitzitzaion, baina ez zuen aurkeztu.

Ingurumen eta Ur Zuzendaritza Nagusiak baimena eman die kudeatzaileei Ongarri buruzko uztailaren 8ko 824/2005 Errege Dekretuko IV. eranskineko hondakin organiko biodegradagarrien zerrendan ageri diren hondakinak tratatzeko, eta baimenak ez du biderik ematen kudeaketa horretan hondakin arriskutsuak erabiltzeko. Balizko hondakin arriskutsu horiek soilik hondakin arriskutsuen kudeatzaile batek erabili ahal izanen ditu. Jokaera horien gaineko kontrola emandako baimenen arabera eta berariazko arauen arabera egiten da, betiere hondakinen ekoizleek eta kudeatzaileek bete beharreko protokolo dokumentalak gauzatu eta aldizka haiei buruzko kontrolak eginez. Kontrolatzeko modu horrekin jotzen da araudiaren betetzea behar bezala bermatuta dagoela.

Hamargarren, hamaikagarren eta hamabigarren galderei dagokienez, ez dakigu jokaera horiek Ebroko Konfederazio Hidrografikoak baimendu dituen, ez eta baimendu behar dituen ere; ez dago jasota, ezta ere, inongo salaketarik aurkeztu denik hondakin arriskutsuak ez diren hondakinekin eta hondakin industrialekin nahasteagatik, eta ez dakigu jokaera horiek eraginik izan duten lurzoruan, uretan edo laboreetan.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko abenduaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

6. puntuan aipaturiko zerrenda

Hondakin industrialak ongarri gisa erabiltzearen ondorioz izapidetutako espedienteak

200/2008 espedientea. T. S.L.ri 15.000 euroko isuna ezartzea, Hondakinei buruzko apirilaren

21eko 10/1998 Legeko 34.3.a) artikulua arau-hauste larri batengatik, kudeatzaile gisa duen baimenerako baldintzak ez betetzeagatik, ez baitu ez irauli ez galbahetu nekazari bati emandako konposta. Hori dela eta, kiratsa dela kausa, enbarazua eragin du.

100/2008 espedientea. P. S.A.ri 10.000 euroko isuna jartzea, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 34.3.k) artikulua arau-hauste batengatik, ekoizpenaren hondakinak –paper-lohiak– baimendu gabeko beste enpresa bati eskuratzegatik.

132/2008 espedientea. C J B jaunari 1.500 euroko isuna jartzea, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 34.3.a) artikulua arau-hauste larri batengatik, hondakinak (paper lantegiaren lohiak, simaurrarekin nahastuak) kudeatzeagatik kudeatzailea izateko baimenik eduki gabe.

142/2008 espedientea. M B A jaunari 1.500 euroko isuna jartzea, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 34.3.a) artikulua arau-hauste larri batengatik, hondakinak (paper lantegiaren lohiak, simaurrarekin nahastuak) kudeatzeagatik kudeatzailea izateko baimenik eduki gabe.

201/2008 espedientea. T S.L.ri 4.000 euroko isuna ezartzea, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 34.3.a) artikulua arau-hauste larri batengatik, paper-orearen hondakinak baimenik gabe kudeatzeagatik (jaso, garraiatu eta balorean jartzea), eta salaketaren unean Nafarroan hondakinen garraiolaria moduan izena emanda ez egoteagatik.

202/2008 espedientea. A G A jaunari 700 euroko isuna jartzea, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 34.3.k) artikulua arau-hauste larri batengatik, hondakinak (paper lantegiaren lohiak, oilo-zirinarekin nahastuak) baimenik ez duen pertsona juridiko batengandik onartzeagatik.

37/2009 espedientea. J S M jaunari 1.000 euroko isuna jartzea, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 34.3.a) artikulua arau-hauste larri batengatik, hondakinak (paper lantegiaren lohiak, simaurrarekin eta oilo-zirinarekin nahastuak) kudeatzeagatik kudeatzailea izateko baimenik eduki gabe.

40/2009 espedientea. M B A jaunari 15.000 euroko isuna jartzea, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 34.3.a) artikulua arau-hauste larri batengatik, hondakinen kudeatzaile gisa duen baimenaren baldintzak ez bete-

tzeagatik, paper-lohiak kudeatzeagatik horretarako baimenik eduki gabe.

• Oharra: Ez ditugu zehaztu zehapen espedienteetako datu pertsonalak, datu pertsonalak babestearen arloko indarreko arauetan ezarritakoa betetzeko.

7. puntuan aipaturiko zerrenda

Tratatuturiko lohiak oinarri harturik nekazaritzan aplikatzekoak diren tratamenduak egiteko baimendutako kudeatzaileak. Halaber, biometanizazioko tratamenduak eta digestio aerobioko tratamenduak egiteko edo konposta fabrikatzeko baimena dutenak.

Zentroaren izena	Udala	Probintzia	Tratamenduaren deskribapena	Tratamenduaren kodea	Kudeatzaile zenbakia
Agralco, s. Coop.	Lizarra	Nafarroa	Tratatuturiko lohiak nekazaritzan aplikatzea	R10	NA/V-17/99
Agua, energía y medio ambiente servicios integrales, S.L.	Alfaro	Errioxa	Tratatuturiko lohiak nekazaritzan aplikatzea	R10	GNP/26/NA/2004
Bioenergía mendi, S.L.	Mendigorria	Nafarroa	Biometanizazioa	R1+r3	15G04167040202009
Depuración de aguas del mediterraneo, S.L.	Valentzia	Valentzia	Tratatuturiko lohiak nekazaritzan aplikatzea	R10	GNP/33/NA/2005
Edar Arazuri	Oltza	Nafarroa	Digestio anaerobiaren bitartez eta digestio anaerobioa + konpostajea erabiliz trataturiko lohiak nekazaritzan aplikatzea	R10	GNP/47/NA/2006
Htn, S.L.	Caparroso	Nafarroa	Biometanizazioa	R1+r3	GNP/89/NA/2009
Lombricultura valtierra, S.L.	Valtierra	Nafarroa	Konposta fabrikatzea	R3	15G04249090112009
Mrs Ribera Baja "Vertedero El Culebrete"	Tutera	Nafarroa	Biometanizazioa eta konposta fabrikatzea	R1+r3, r3	GNP/69/NA/2007
Navarra de Infraestructuras Locales, S.A.	Iruña	Nafarroa	Digesioa aerobioa hondakin uren araztegian	R3	GNP/64/NA/2007
Slir, S.L.	Zarrakastelu	Nafarroa	Konposta fabrikatzea	R3	NA/V-29/01
Tecnología Industrial del Reciclaje Ib, S.L.	Funes	Nafarroa	Konposta fabrikatzea	R3	GNP/19/NA/2004
Yacutec, mejora y gestión de vertidos, S.L.	Iruña	Nafarroa	Tratatuturiko lohiak nekazaritzan aplikatzea	R10	GNP/32/NA/2005

Galdera, Nafarroako Landa Garapen Iraungarriari buruzko Planaren gainekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako Landa Garapen Iraungarriari buruzko Planaren gainean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 11ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek galdera egin du jakiteko zer irizpide erabili diren erabakitzerakoan zein udalerrri edo eskualde sartu Nafarroako Landa Garapen Iraungarriari buruzko Planean (PES-315). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Planteatzen duzun lehendabiziko gaiari dagokionez, adierazi behar dizut informazio hori jada Parlamentuari jakinarazi zitzaioela, zehazki kontseilariak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean egin zuen agerraldian. Agerraldi hori, izan ere, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eskatu zuen, eta 2009ko azaroaren 19an gauzatu zen. Agerraldi horren ondoren, idatzizko informazioa igorri genion, halaber, zeure taldeko Txentxo Jiménez Hervás jaunari. Hala eta guztiz ere, berriz eranstean dizut erabilitako irizpideei buruzko txosten idatzia.

Planteatzen duzun gaiari dagokionez, kontu horri erantzuna eman zaio aurreko galderari buruzko azalpenean. Udalerrri horiek ez dira planean sartu Nafarroako hainbeste udalerrri sartu ez diren arrazoi berberengatik. Funtsean honela laburbil daitezke arrazoi horiek: udalerrri horiek guztiak Landa Ingurunerako Kontseilu Nazionalak nazio osorako erabili dituen irizpideak eta datuak aplikatuta lehenestekoak ez diren Nafarroako Lurralde Estrategiako azpi-arlo batzuetakoak dira. Landa Ingurunearen Garapen Iraunkorrerako 45/2007 Legea aplikatzeko filosofia ez datza landa ingurune osoan funtsak eta ahaleginak aplikatzean, baizik eta hain zuzen ere funts horiek kontzentratzean Espainiako landa ingurune landa eremu deprimituenetan.

Helburua landa inguruneak kalifikatzea da, ez landa ingurune udalerrriak. 45/2007 Legeak ezartzen du autonomia erkidego bakoitzak kalifikatu eta mugatu behar dituela bere landa eremuak nazio mailan zehaztutako irizpide komun arabera eta nazio mailako aldagai eta datu-base komun batzuen arabera, hain zuzen ere erreferentziako aldi berak erabiltzen dituztenak, bazterkeriak saiheste aldera.

Autonomia erkidegoek landa eremu horiek mugatu eta Landa Garapen Iraunkorreko Programa aplikatu behar dute beren landa antolamenduko lurralde-estrategien arabera (Nafarroako kasuan, Nafarroako Lurralde Estrategiaren arabera). Horixe da hain zuzen ere Nafarroak egin zuena Gobernuaren kasuko erabakiaren bitartez. Izan ere, hartan, Nafarroako Lurralde Estrategiako azpi-arloak kalifikatzen ditu, nazio mailan hartutako irizpideei jarraituz. Hori dela eta, harrigarri gerta daiteke jotzea udal batzuk ustez "egoera okerragoan" daudela lehenengo LGIParen aplikazio eremuetan ere ageri ziren beste batzuk baino. Parlamentu-galderan aipatzen diren udalak ez daude jarduera-eremuetan sarturik zeren eta haiei dagokien Nafarroako Lurralde Estrategiaren azpi-arloak adierazle hobekak baitaizka jarduera-eremuetan sarturik dauden Nafarroako Lurralde Estrategiako azpi-arloek baino; esate baterako: batez besteko errenta, bidaia-denbora, biztanleriaren dentsitatea, zahartasun tasa eta abar; eta batez ere, aintzat hartutako aldiari haieran biztanleriak gora egin du, eta hori lehenespeneko faktore gakoak da, zeren eta mugatutako lehenespeneko eremu guztiek izendatzaile komun bat bai baitute: aintzat hartutako aldiari biztanleriak behera egin izatea.

Landa Garapen Iraunkorreko Programa Nazionala garatzeko Nafarroan egin beharreko ekintza-planetan jasotako neurriak ez dira mugatu behar gobernu-erabakian lehenestekotzat sailkatutako lau eremuetara, zeren eta eremu horietatik kanpo beste udal batzuetarako ekintzak ere sar baitaitezke, betiere lehenestekoak diren eremuen gaineko aldeko eragina dutela justifikatzen bada.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko abenduaren 15ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Agoran)

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Aurrezki Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kide izateko proposatu behar dituen lau pertsonak hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Aurrezki Kutxaren Estatutuetak 72. artikulua ezarri zuen Entitate Sortzaileen Batzarra Nafarroako Parlamentuak proposatu eta Nafarroako Gobernuak Lehendakariak izendatutako lau kidek osatuko dutela, besteak beste. Kide horiek legebiltzarra osatzen duten parlamentarien artean hautatuko dira, legebiltzar horrek ezartzen duen prozedurari jarraituz.

Horrenbestez, Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kide horiek hautatzeko arauak onetsi behar ditu Parlamentuak, Erregelamenduko 37.1.9 artikuluari jarraituz. Hori dela eta, ERABAKI DUGU:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Aurrezki Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kide izateko proposatu behar dituen lau pertsonak hautatzeko arauak onestea. Hona arau horiek:

1. Nafarroako Parlamentuak lau foru parlamentari hautatuko ditu Nafarroako Gobernuak Lehendakariak Nafarroako Aurrezki Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kide izenda ditzan, Kutxako Estatutuetak 72. artikuluan xedatuaren arabera.

2. Bete beharreko postuak zenbat diren, parlamentu-talde bakoitzak edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak beste horrenbeste izangai aurkeztu ahaliko ditu.

3. Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idatziz aurkeztuko dituzte hautagaiak parlamentu-taldeek

eta foru parlamentarien elkarteek, eta, idatzi horretan, proposatutako hautagaien onarpena jaso beharko da.

4. Parlamentu-taldeek Nafarroako Aurrezki Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kideak izateko hautagaiak aurkezteko epea 2010eko maiatzaren 20an, 12:00etan, bukatuko da.

5. Hautagaien zerrendak aurkezteko epea amaiturik, proposatutako hautagaiak baldintzak betetzen ote dituzten erabakiko du Mahaiak.

6. Nafarroako Aurrezki Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko lau kideak aldi berean hautatuko dira, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran isilpeko bozketa eginda.

7. Txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak, zenbat postu bete behar diren, beste horrenbeste izen jarri ahaliko ditu txartelean.

8. Mahaiak boto-kontaketa egin eta boto gehien eskuratu dituzten lau hautagaiak hautatu direla aldarrikatuko du.

9. Berdinketarik badago eta horrek Parlamentuaren proposamenean eragiten badu, berdinketak boto kopuru berbera lortu dutenen arteko beste bozketa baten bidez ebatziko dira. Berdinketak bere horretan segitzen badu, hurrenez hurreneko bozketak egingen dira boto kopuru berbera duten hautagaien artean berdinketa desegin arte.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda